

Funtsezko baliabideak

Proiektu honetan garrantzitsuak diren zenbait baliabide ere jorratuko dira. Hasteko, proiekturako behar-beharrezkoa den material bat beharko da, ordenagailua, alegia. Azken batean, honekin egingo baitira lan guztiak. Horrez gain, ordenagailuarekin lana egin ahal izateko, lokal txiki bat alokatuko da, udaletxeak diru laguntza bat eskainita. Beste aldetik, finantza-baliabideak daude eta horretarako, udaletxearen eta udal-laguntza beharrezkoa izango da, hauek gabe, ezingo baita proiektua gauzatu. Azkenik, beste baliabide batzuk daude, intelektualak hain zuzen ere. Baliabide hauetan, behar-beharrezkoa direnen abilezia oso garrantzitsua eta funtsezkoa da. Horretarako, informatikari batek webguneak diseinatzeko ezagutza jakina izan behar du; webgunea erakargarria eta ondo antolatua egon dadin. Bestetik, publizitatean adituak direnen abilezia, bestela, webgunea ez luke inork ezagutuko eta erabiliko. Amaitzeko, dena koordinatu eta uztartzeko gaitasuna dutenen laguntza ere behar da; izan ere, hauek gabe zaila izango litzateke horrelako lan bat aurrera eramatea.